

Azterketa

Estudio

**Euskal administrazioetan langileen
presentziaren kontrola**

**Control de presencia del personal
en las administraciones vascas**

1996



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



Euskal administrazioetan langileen presentziaren kontrolari buruzko Azterketa

Estudio sobre el control de presencia del personal en las administraciones vascas

Vitoria/Gasteiz, 1998ko urtarrilak 15
Vitoria/Gasteiz, 15 de enero de 1998



AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. LANAREN NONDIK NORAKOA	1
II. PRESENTZIA-KONTROLA	1
II.1 Zer den	1
II.2 Garrantzizko helburuak	3
II.3 Fitxa eta gorabeherak	4
II.4 Zentralizazioa eta deszentralizazioa	5
II.5 Kontrolaren hedadura	5
II.6 Fitxaketaren jagoletza	6
II.7 Idatzizko arauak	6
II.8 Jardunaren etenaldiak	6
II.9 Ausentziak	7
II.10 Eguneroko informazioa	7
II.11 Hileko Kontrola: Deskontuak	8
II.12 Informazio estatistikoa	8
III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	10
ERANSKINA	13
A.1 Absentismo-ratioak	13
A.2 Elkarrizketen gidoia	14
I. ALCANCE DEL TRABAJO	17
II. EL CONTROL DE PRESENCIA	17
II.1 Qué es	17
II.2 Objetivos e importancia	19
II.3 Ficha e incidencias	20
II.4 Centralización y descentralización	21
II.5 La extensión del control	21
II.6 La vigilancia del fichaje	22
II.7 La normativa escrita	22
II.8 Las interrupciones de la jornada	22
II.9 Las ausencias	23
II.10 La información diaria	23
II.11 El control mensual: los descuentos	24
II.12 La información estadística	24
III. CONCLUSIONES Y RECOMENDACIONES	26
ANEXO	29
A.1 Ratios de absentismo	29
A.2 Guión de las entrevistas	30



I. LANAREN NONDIK NORAKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Administrazioetan Pertsonalaren Presentzia-Kontrola gauzatzeko prozedurak aztertu ditu, 1997rako Urteko Lan-Programan barne hartutako proiektuaren bitartez.

Txosten hau lantzeko, euskal administrazioen handienetako pertsonal-zuzendariei egindako elkarrizketetatik abiatu gara (elkarrizketen gidoi normalizatua A.2 eranskin gisa aurkezten da).

Aztertu diren administrazioak, hauetako bakoitzak 1996ko ekitaldia itxi zenean zituen enplegatuen kopurua adierazirik, ondokoak dira:

ENTITATEA	ENPLEGATU-KOPURUA (*1)
Administrazio Orokorra (akordio eta hitzarmen orokorrak)**	4 700
Arabako Foru Aldundia	1.700
Bizkaiko Foru Aldundia	3 600
Gipuzkoako Foru Aldundia	2 000
Gasteizko Udala	2 400
Bilbaoko Udala	2.600
Donostiako Udala	1.500
GUZTIRA	18.500

(*1) Erakunde autonomoak barne hartzen ditu

(**) Beste akordio eta hitzarmen batzuk kanpo utzirik Ertzaintza eta UTAP, Osakidetzako osasun-pertsonala, Hezkuntzako irakasleak eta Justiziako pertsonala.

II. PRESENTZIA-KONTROLA


Epigrafe honetan, presentzia-kontrola gauzatzeko erabiliko den sistema egokiak kontuan izan behar dituen alderdi nagusiak garatzen dira.

II.1 ZER DEN

Presentzia-kontrola, entitate bateko langileek lan-ordutegia betetzen dutela ziurtatzeko entitate horrek hartzen dituen neurrien multzoa da. Presentzia-kontrola ez da, berez, helburu bat, lan eraginkorra lortzeko baliabide bat baizik. Eta bera bakarrik ez da nahikoa izaten, gainera, presentziak ez baitu kalitateko lana egingo denik bermatzen: *egindako lanaren kontrolak*, gestio-sailen ardura izanik, lanpostu guztietan egon behar du ezarrita.



PRESENTZIA-KONTROLAREN PRINTZIBIOAK




Presentzia-kontrolak lau printzipiotan oinarriturik egon behar du:

- Orokortasuna: enplegatu guztiek egon behar dute kontrol horren pean.
- Homogeneotasuna: entitate bateko sail eta zerbitzu guztietan irizpide bateratuak aplikatzen dira, beharrezko gerta daitezkeen berezitasunen kaltetan izan gabe.
- Arintasuna: kontrolaren informazioa puntualki eskura daiteke eta, kasu batzuetan, berehalakoan.
- Arrazoizko kostua: kontrola burutzeko erabiliko diren giza baliabideek eta baliabide materialek proportzio egokia izan behar dute.

II.2 GARRANTZIZKO HELBURUAK

PRESENTZIA-KONTROLAREN HELBURUAK



Pertsonalaren presentzia kontrolatzeko prozedurak beharrezkoak dira edozein enpresa edo administrazioan, langile bakoitzak kontratatu zaien ordutegiz eta zerbitzua ordaintzen zaizkion ordu guztiez betetzen duela ziurtatzeko.

Presentzia-kontrola, jarduketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasun-printzipioaren osagai garrantzitsua da eta, gainera, enplegatu publikoen artean egon behar duen berdintasuna bermatzen du.

Presentzia-kontrol egokirik ez ezartzeak erraz ekar ditzake gehiegikeriak eta, hauek lanan eragin kaltegarria izateaz gain, enplegatu publikoen irudia hondatzen dute hiritarren aurrean.


Presentzia-kontrolaren beste helburuetako bat, lan-absentismoari eta enplegatuek prestakuntzan emandako ordu-kopuruei buruzko informazio estatistiko fidagarria eskuragarri edukitzea da. Datu hauek gestiorako garrantzi handia dute, lan-giroaren adierazle izan baitaitezke eta, presentzia kontrolatzeko sistema egokirik gabe, ezezagunak edo zalantzarriak gertatzen dira.

Presentzia-kontrolak beste zeregin bat ere betetzen du, talde edo pertsona jakin batzuek egindako aparteko orduen froga gisa, nola ordu horiek ordaintzeko hala gerora ordutegia murriztuz konpentsatzeko.



II.3 FITXA ETA GORABEHERAK

PRESENTZIA-KONTROLA: INFORMAZIO-SARRERAK



Benetazko arrazoiak

- Idatzizko arauak
- Deszentralizazioa
- Lantoki txikiak eta EE.AA.
- Fitxatze-iruzurak

Presentzia-kontrolaren oinarrizko prozedura, langilea lantokira sartu eta handik irteten denean sarrera eta irteera erregistratzean datza, normalean *fitxaketa* edo *fitxaren* bitartez. Informazio hori jardun-etenaldien edo ausentzien datuekin osatzen da, bakoitzerako arrazoiaren arabera sailkatuz.

Kontrol-sistema informatiko bati konektaturiko *fitxaketa-erlojua* prozedura hedatuena eta, hasieran behintzat, gomendagarriena izanik ere, badira egoera berezietan kontuan har daitezkeen beste sistema batzuk: eskuzko fitxaketa (antzinako erlojuak), ordu jakin batean kendu eta gordetzen den agiri batean sinatzea, telefono edo modem bidez deituta fitxatzea, fitxaketa automatikoa ordenadore pertsonala konektatzen den unean, eta abar.

Jardun-etenaldien edo ausentziengatik gorabeherak agiritan biltzen dira eta *gorabeheren parteak* edo antzeko agiriak erabiliz onartzen dira. Datu hauek sistema informatikoan sartzen dira, langile bakoitzak une oro ezagutu ahal izan ditzan lan egindako orduen kopurua, nahiz bertan izan ez den orduen kopurua eta egoera horien zergatiak.



II.4 ZENTRALIZAZIOA ETA DESZENTRALIZAZIOA

Presentzia-kontrola bakarra da eta pertsonal-sailetik egiten da.

Presentzia-kontrolaren arduraduna pertsonal-saila izan arren, ez da arrazoizkoa eta ezin eskatu zaio guztia inolako laguntzarik gabe egitea. Pertsonal-arloaren gestio egokiak sail eta zerbitzu guztien partaidetza eskatzen du, eta garrantzizkoa da gestio-arloen buruei gai honetan erantzukizunak ematea, eta hauek naturaltasunez onartu behar dituzte esleituko zaizkien pertsonal-kontrolako eginkizunak.

Entitate bakoitzak bere administrazio-kultura du, eta gestio-arloetako buruek pertsonalaren gestioari loturiko gaietan dituzten zereginak ezberdinak dira. Ez dago, jakina, dezentralizazio-eredu gomendagarri bakar bat, eta edozein aukera izan daiteke baliagarri, beti ere, homegeneotasun eta arintasun printzipioak betetzen baditu. Baina egoki dirudi, gutxienez, administrazio handiek garrantzi gutxiko gorabeheren tramitazioa eta datuak sistema informatikoan sartzeko lana sailetara deszentralizatzeak.

Pertsonal-sailaren ardura dira, edonola ere, araudia, sailen ekintzen gainbegiraketa, berretzat gordeko dituen gorabehera garrantzitsuenen kontrola, nominetan egin beharreko deskontuak, eta informazio estatistikoa.

II.5 KONTROLAREN HEDADURA

Presentzia-kontrola, administrazio bereko langile guztiengana hedatu behar da, inolako salbuespenik gabe.

Honek ez du esan nahi egoera guztietan berdina izan behar duenik, eta lantoki txikiek edo kolektibo berezi batzuek arrazoi nahikoak izan ditzakete gorabeheren parteekin osatutako fitxaketa-erlojuaren sistemaz beste prozeduraren bat erabili behar izateko.

Lantoki txikienetan, bertako ardura duen pertsonak zuzenean hartu behar ditu bere erantzukizunpean eguneroko kontrol-lanak, eta komenigarri izan daiteke eginkizun hori bere lanpostuaren deskribapenean adierazita agertzea.

Kontrolerako prozedura edozein dela ere, eta eskuz nahiz ordenadorez egin, informazioa sistema orokorrari erantsi behar zaio, gutxienez hileko laburpenak eginez, sistema orokorrak langile guztien informazioa barne hartu behar baitu ordutegia betetzeari dagokionez.

Erakunde autonomoetako langileek ere presentzia-kontrolako sistemaren pean egon behar dute. Beraz, administrazio baten presentzia-kontrola erakunde autonomoetara ere zabaldu behar dela ulertzen dugu, tamaina txikia dutenetara bereziki, kontuhartzaitza-funtzioa, adibidez, bakarra den bezalaxe.

II.6 FITXAKETAREN JAGOLETZA

Presentzia-kontrola arauz kontrako jarduteko moduen bitartez saihes liteke:

- Sarrera-erregistroan, fitxatu eta berehala eraikinetik irtenez gero
- Ausentziak erregistratu gabe utziz
- Sarrera edo irteerako erregistroa beste pertsonaren batek eginez

Gertatu. ezohiko ekintza hauek gertatzen dira, eta zorroztasunez tratatu behar dira. Badira horrelako iruzurrak eragozteko prozedura batzuk:

- Jendearen eta langileen sarrerak bereiziz
- Fitxa sartuz bakarrik zabal daitezkeen ateak ezarriz
- Fitxatzeko leku egokia hautatuz, erraz kontrola daitezkeen punturen batean ezarrita: puntu horren jagoletza pertsonala (atezaina) edo mekanikoa (bideoa).
- Pertsonal-sailetik, edo zerbitzuak berak, enplegatu jakin batzuen presentzia egiaztatzeko ikuskapenak egitea; aldian-aldian egin daitezke.

Edonola ere, fitxaketaren jagoletza-neurriak hartu beharrekoak dira, lan-ordutegiarekiko erabateko begirunearen kultura ezarriz.

II.7 IDATZIZKO ARAUAK

Presentzia-kontrolako prozedurak idatzizko agirietan biltzea komeni da, horien bitartez funtzionari bakoitzak alde aurretik ezagutu ditzan bere eskubideak eta betebeharrak.

Arau horietan bildu behar dira, adibidez, ordutegiak eta hauen mailgutasun-tartea, fitxatzeko obligazioa eta horretarako lekuak eta egiteko moduak, gorabehera guztien tramitazioa, lizentziak eta baimenak barne, galdutako denbora berreskuratzeko arauak, deskontuak, aparteko orduak konpentzatzeko modua, eta abar.

Jarraipide hauek idatziz jasota egon arren, sarritan sakabanatuta egoten dira edo ohituren bidez arautzen dira. Guztia agiri batean bildu eta eguneratuta edukiz gero, informazio osatuagoa eskaintzen da eta administrazio bereko sail desberdinen arteko interpretazio ezberdinak saihesten dira.

II.8 JARDUNAREN ETENALDIAK

Jarduna eteteko arrazoirik ohikoenak kontsulta medikoetara joan beharra eta ezinbesteko betebeharrak (NAN, pasaporteak edo gida-baimena berritzea, eta abar) izaten dira. Kasu berezia dugu *kafea hartzeko geldialdia*, hau da, aztertutako administrazio gehienetan horretarako baimendutako 15 edo 20 minutuko etena.

Lan-jardunaren etenaldiei dagozkien kontrol-helburuak argi daude: etenaldi guztiak erregistratu behar dira, eta debekaturik egon behar du dagokion irteera eta irteteko arrazoiak erregistratu gabe lantokia uztea.

Honek, lana eraikinetik kanpo jarraitzeko egiten diren irteerak ere barne hartzen ditu; horretarako fitxaketa-sisteman aurrez aldetik ezarrita egon behar du gako informatiko egokia.

Hau aplikatu ahal izateko, presentzia-kontrola funtzionari guztiengana hedatu behar da, ez baita fidagarria izango, inola ere, sarrerak eta irteerak erregistratu ere egiten ez dituen enplegatuaren aldi baterako ausentzien kontrola.

Kasu batzuetan, jardunaren etenaldiak lantokian bertan gertatzen dira, normalean prestakuntza dela medio (erakundeak berak ematen dituen ikastaroak) edo ordu sindikalengatiko baimenak. Datu hauek ere presentzia-erregistro informatikoei erantsi behar zaizkie, lortutako informazioa baliagarria izan dadin.


II.9 AUSENTZIAK

Egun bat edo gehiago irauten duten ausentziak jardunaren etenaldiak baino nabariagoak dira eta, arrazoi bera dela medio, errazago kontrola ditzake fitxaketa-sisteman barne harturik dauden enplegatuaren kolektiboak.

Ez da gauza bera gertatzen fitxatzen ez den lantokietan, pertsonal-sailak nekez kontrolatu ahal izango baititu modu eraginkorrez bertan gertatzen diren ausentziak. Fitxaketa-sistema esparru guztietara zabaltzea eta, hau ezinezkoa den kasuetan, langileen arduradunak erantzukizuna bere gain hartzea ditugu esandako akats hori konpontzeko bide bakarrak.

II.10 EGUNEROKO INFORMAZIOA

PRESENTZIA-KONTROLA: INFORMAZIO-IRTEERAK





Kontrolerako baliagarri izango den informazioak arina izan behar du, hau da, egun gutxiren buruan eskuragarri egon beharko du.

Arintasun hori berdin lortu behar da erlojutik zuzenean lortutako informazioari dagokionez (sarrera- eta irteera-orduak, eta jardunaren etenaldiak) eta egoera berezietan buruzko informazio osagarriaren inguruan (edozein arrazoirengatik auzentziak).

Arintasuna lortzeko tresna ona izaten da datu informatikoak sartzeko lana sailletara deszentralizatzea. Oso zentralizaturik dauden administrazioek informazioa oso berandu eskuratzeko joera izaten dute.

Aztertu diren administrazioetariko batzuetan, aurreko eguneko datu informatikoak egunero igortzen zaizkie zerbitziburuei, baita irregulartasunak izan dituzten enplegatuei ere. Hau kontrol-tresna ona dugu, berehalakotasunak gehiegikeriak eta iruzurrak detektatzeko eta balizko akatsak zuzentzeko erraztasuna eskaintzen baitu.

Edonola ere, eguneroko kontrol-prozedurek, kontrol hori naturaltasunez gestionatzeko modukoak izan behar dute, administrazioaren jarduketa helburuak betetzera zuzendurik baitago, eta ezin ditu sekula ahalegin gehienak presentzia-kontrola bezalako laguntza-elementu batera bideratu.

II.11 HILEKO KONTROLA: DESKONTUAK

Enplegatuek ezarritako ordutegia erabat betetzen ez duenean, horri dagokion deskontua aplikatu behar zaie bere ordainsariei, administrazioak bere aldetik har ditzakeen beste neurri batzuen kaltetan izan gabe.

Hilabeteko epea da administrazio gehienek nominan deskontuak aplikatzeko hautatzen dutena. Ohiko da, halaber, bete gabeko orduak dituztenei, kopuru jakin bat gainditzen ez badute, hurrengo hilabetean berreskuratzeko aukera ematea, eta aukera egokia izan daiteke baina, beti ere, ordu-kopuru hori txikia baldin bada eta onartuko den berreskurapen-planak benetan ordu horiek lanean emango direla ziurtatzeko bermea eskaintzen bada.

II.12 INFORMAZIO ESTADISTIKOA


Presentzia-kontrolaren helburuetako bat langileen absentismoari buruzko informazio estatistikoa edukitzea da, absentismo hori justifikatua nahiz justifikatu gabea izan; baita administrazioak bere enplegatuen prestakuntzan inbertitu dituen orduetarako buruzkoa ere.

Datu estatistikoak fidagarriak izan daitezten, presentzia-kontrolak orokorra izan behar du (langile guztien datuak biltzen dira) eta eskuratzen den informazioa ona dela ziurtatuko duen disziplina zuzena egon behar du (sarrera eta irteera guztiak fitxatzen dira, eta etenaldi nahiz auzentzia guztien arrazoiak ezagutzen dira).

Informazio hau administrazio desberdinen artean alderatu ahal izateko, prestatzeko garaian kontzeptu homogeneoak aplikatu behar dira. Txosten honen eranskin batean balizko analisi-prozedura proposatzen da, egin behar liratekeen azterketa xehatuago batzuetarako ekarpen gisa.



PRESENTZIA-KONTROLA



III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Administrazio bakoitzak bere egoera aurreko paragrafoan deskribatu den kontrol-eredu orokorarekin alderatuz atera ditzakeen ondorioez gain, egindako elkarrizketen bidez ondoko egoerak detektatu ditugu:

1. Alderdi orokorrak

Ondorio orokor gisa, balorazio baikorra egiten dugu aztertutako ia administrazio guztietan presentzia-kontrolaren arloan azken urteetan lortu diren aurrerapenei buruz, baina halere, jorratutako bidetik etorkizunean ere aurrera jarraitu behar dela irizten diogu.

Elkarrizketatu batzuek aditzera eman digutenez, presentzia-kontrola areagotzen saiatu orduko, praktikan zailtasun handiak aurkitzen dituzte, enplegatuek jarduketa errepresibotzat hartzen baitute, nahiz eta gehiegikeria-egoeraren bat konpontzeko izan.

Bestalde, gestio-sailtako buruek erreparoa jartzen dituzte pertsonal-gestioko eginkizunak beren gain hartzeko, aginpide hori zentralizaturik dagoela eta, beren erantzukizuna, betetzen duten karguaren alderdi teknikoetara mugatzen dela ulertzen baitute.

Gestio-arloen burutzak berekin dakar esleitutako pertsonalaren gaineko zuzendari-erantzukizunen onarpena eta, hein horretan, normaltasunez bete behar dira.

2. Presentzia-kontrolaren hedadura

Egindako elkarrizketetan, fitxaketa-sistemaren bidezko presentzia-kontrola euskal administrazio handietan aplikatzen dela egiaztatu ahal izan dugu, nahiz eta bakoitzaren barruan ez dauden guztiz hedaduta; enplegatuen %40tik %90era bitarteko kopuruak biltzen dituzten kolektiboetara iristen dira.

Lantoki txikiek eta erakunde autonomo batzuek gaur egun ez dute presentzia-kontrol eraginkorrik, eta ondorioz, bertan gertatzen diren gorabeherak ezin dira benetan kontrolatu.

Lantoki txikiei dagokienez, fitxaketa-erlojua arrazoibidez jartzeko behar den gutxieneko pertsona-kopurua birplanteatzea gomendatzen dugu, oso lantoki handietan bakarrik instalatzeak ez baitu irizpide egokiena denik ematen. Egin litekeenaren barruan legoke 10 pertsonatik gorako lantokietan ezartzea, eta horrek neurri handi batean murriztuko luke fitxatzeko obligaziorik ez duten enplegatuen kopurua.

Presentzia-kontrola lantokirik txikienetan ere aplikatu behar da, nahiz eta horretarako beste baliabide batzuk erabili (eskuzko fitxaketa-sistemak, ikus-onarpena zerbitzuburuak eman beharreko sarrera- eta irteera-partek, pertsonal-



sailera telefonoz deitzea, ordenadore zentral batekiko modern bidezko konexioa, eta abar). Kasu hauetan, funtsezkoa gertatzen da lantokiko arduradunak kontrolerako prozeduran zuzenean parte hartzea.

Erakunde autonomoek ez dute presentzia-kontrolarik kanpo geratu behar. Konponbiderik arazoizkoena, sarritan, menpe dituen administrazioetik bertatik aplikatzea izango da, kontuhartzaitza bezalako beste kontrol-funtzio batzuek ere bateraturik betetzen diren bezalaxe.

Aztertutako udal administrazio batzuetan, badira garrantzizko kolektiboak (ehundaka pertsona biltzen dituztenak), pertsonal-sailetik kontrolatzen ez direnak eta beren kontrol bereziak erabiltzen dituztenak, sistema orokorretik kanpo eta informatizatu gabe.

Zerbitzu hauek, komeni diren egokitzapenak egin eta presentzia-kontrolerako sistema orokorrean integratu behar lirateke.

3. Egutegiak eta ordutegiak

Elkarrizketak egin ahal, administrazio batzuek onartuta dituzten egutegi eta ordutegi ezberdin ugari dagoela egiaztatu ahal izan dugu. Elkarrizketatu desberdinek aditzera eman digutenez, honek ez dio bete beharreko eginkizunen bererariazko premia bati erantzuten beti, batzuetan, aldiz, horren jatorria oraindik erregularizatu ez diren egoera historikoetan egoten da.

Entitate bakoitzean egutegiak eta ordutegiak arrazionaltzeari buruzko azterlan bat egitea gomendatzen da, zerbitzu publiko hobe eman beharrak justifikatzen ez duen kasuetan aniztasuna gutxitzeko helburuz.

4. Idatzizko arauak

Zenbait administrazioetan ez dago presentzia-kontrolaren inguruko gaiak arautzen dituen idatzizko araudirik, eta ohituran oinarritutako edo akordio puntualetan araututako irizpideak erabiltzen dira.

Idatzizko araudia lantzea gomendatzen da, zeinean administrazio bakoitzak presentzia-kontrolerako gaiekin zerikusia duen informazio guztia bilduko baitu.



5. Erregelamenduzko etena

Gure iritziz, hedaturik dago jendartean administrazioetan jardun-etenak perrutibitate handiegiz tratatzen diren uste txarra. Horren adibide berezi dugu kafea hartzeko geldiduna, aztertutako administrazio gehienetan horretarako baimendutako 15 edo 20 minutuko etena da eta enplegatuak lantokitik kanpo irteten dira. Entitate askotan etenaldi hau ez da erregistratzen.

Presentzia-kontrolako araudia egoki betetzen dela, betebeharrak erabateko errespetoaren kultura sortzearen, behar bezala ziurtatu eta jagon behar da.

Kafea hartzeko geldiduna erregistratu egin behar da.

Aztertutako udal-entitate baten eguneko lan-jarduna 20 minutuz murriztu zuen, pertsonalak kafea hartzeko geldidunari uko egitearen truke. Halere, ez du ematen obligazio hau bete denik, beraz, horren jagoletza berezia ezarri behar litzateke.

6. Presentzia-kontrolari buruzko informazioa

Informazioaren arintasuna presentzia-kontrolaren funtsezko printzipioa da. Halere, aztertutako administrazio batzuek dextenteko berandutzaz tratatzen dituzte gorabeherak, eta ez dute berehalakoan erabiltzen fitxatzeko erlojuaren informazioa.

Sistema ona iruditzen zaigu entitate baten batek erabiltzen duena, egunero bidaltzen baitiete zerbitzulari guztiei aurreko eguneko fitxaketaren datuak biltzen dituen zerrenda, eta informazioaren berehalakotasunak balizko gehiegikeriak detektatzeko aukera eskaintzen baitu. Hori osatzeko, aurreko eguneko gorabeheraren bat izan duten enplegatu guztiei beren datuak bidaltzen zaizkie.

Gorabeherari buruzko informazioa sisteman arintasunez sar dadin, zeregin hau deszentralizatzea gomendatzen da.

Orokorrean, aztertutako administrazioek informazio estatistiko urria dute eta gaur egungo sistemak, praktikan, ez doaz fitxaketa-kontrolako mekanismoa baino urrunago. Honen arrazoia, informazioaren orokortasunik ezean datza (ez ditu enplegatu guztiak biltzen) baita datu horien fidagarritasun eskasean ere (jardunaren etenaldien kontrola, adibidez, akastuna izaten da).

Enplegatuen prestakuntza- eta absentismo-zifrei buruzko informazioa eskuragarri edukitzea dugu presentzia-kontrolaren helburu garrantzitsu bat.

Datu estatistikoak baliagarriak izan daitezkeen, administrazio desberdinetan berdina izan behar dute, hau da, terminologia bakarra aplikatu behar da eta ratio homogeneoak kalkulatu behar dira. Hori honetan, A.1 eranskinean azaltzen dugu balizko aukera bat.

ERANSKINA

A.1 ABSENTISMO-RATIOAK

Administrazio bakoitzerako erreferentziako oinarri-magnitudea, eskuragarri dituen lanorduak izango lirateke, edo ondoren adierazi bezala definitu litekeen LAN-DENBORA TEORIKOA (LDT):

LAN-DENBORA TEORIKOA (LDT): langile bakoitzaren kasuan, hitzarmenaren arabera lanean eman beharreko orduen batura da (lan-jarduna normala izan daiteke, murriztua, eta abar) hala dagokionean aparteko orduak gehituz. Talde baten kasuan, osatzen duten langileen LDT-en batura da.

LDTa 4 magnitude nagusitan deskonposa daiteke:

1. **BENETAKO LANA:** lantokian benetan emandako presentzia-orduak, euskara ikasten edo prestakuntzarako bertan egindako orduak kenduta, gehi lantokitik kanpo lanean emandakoak. Gainera, eta sektore pribatuaren irizpideekin homologatzearen, benetako lantzat hartuko litzateke kafea hartzeko baimendutako geldialdia.

2. **PRESTAKUNTZA:** prestakuntza eta euskara-eskolak direla medio, bete gabeko benetako lanorduak. Eskola-orduak eta horretarako joan-etorriak barne hartzen ditu, baita lantokian edo handik kanpo programaturiko prestakuntza orduak ere.

3. **LIZENTZIAK ETA BAIMENAK:** administrazio bakoitzaren interesen arabera, zehaztasun handiagoz sailkatuko dira: baja medikoak, haurdunaldia eta edoskitzea, lizentzia pertsonalak behar bezala banakaturik, lizentzia sindikala, baimen ordainduak, eta ordaindu gabeko baimenak.

4. **JUSTIFIKATU GABEKO ABSENTISMOA:** LDTari aurreko hiru atalen batura kenduz lortzen da.

Informazio honetatik abiatuz, absentismo-ratioa ondoan adierazi bezala definitu daiteke:

ABSENTISMO-RATIOA: 3. eta 4. atalen batura LDTaz zatitzearen emaitza da. *Justifikatutako Absentismoa (3.)* eta *Justifikatu gabeko Absentismoa (4.)* ataletan deskonposatzen da.

Irizpide bera erabiliz, prestakuntza-ratioa 2. osagaia LDTaz zatituz lortuko litzateke.

A.2 ELKARRIZKETEN GIDOIA

Lantokiak, ordutegiak eta erakunde autonomoak

1. Lantoki guztien zerrenda azaldu, ahal izanez gero, bakoitzean lan egiten duten pertsonen kopuruak adieraziz (Aurrekontuarekin alderatu).
2. Onartutako lan-ordutegiak azaldu, sarrerako eta irteerako malgutasun tarteak eta urteko hitzarmenean bildutako ordu-kopurua adieraziz.
3. Administrazio horren menpeko erakunde autonomoen zerrenda.

Fitxaketa-sistema; datu eskuragarriak

4. Identifikatu fitxatzeko puntuen kopurua. Langile bakoitzak leku jakin batean fitxatu behar du, ala egin al dezake, adibidez, beste sail baten egoitzan?
5. Lantoki guztietan langile guztiek fitxatzen al dituzte laneko sarrerak eta irteerak?
Identifikatu salbuespenak (sail batzuek, karguek, lan-bereziak egiten dituztenek), eta koantifikatu pertsona-kopuruaren arabera.
6. Fitxatzeko lekuen egokitasuna: jendearentzako pasabidea edo baztertuegia, kontrol zuhurra ezartzeko aukerak, eta abar.
Ba al dago fitxatu baina ez sartzeko aukera edo langileren batek beste lankideren baten ordeztatzeko aukera eragozteko prozedurarik?
Arestian azaldutakoak Administrazioari benetako arazorik eta/edo irudi-arazorik ekar lekiok?
7. Jardun-etenaldiak: Exijitzen al da aldi baterako irteerak fitxatzea? Egiten al dira, idatziz, gorabeheren parteak edo antzekoak? Sartzen al da informazioa sistemara?
 - “Kafea” hartzeko gelditzea. Benetako lanean emandako denboratza hartzen al da?
 - Euskara-eskolak
 - Lantokitik kanpo egindako lanak
 - Kontsulta medikoak
 - Edoskitzea
 - Ezinbesteko betebeharrarako lizentziak
 - Egun 1 baino gutxiago irauten duten norberaren arazoak: seme-alabak sendagilearengana eramatea, eta abar. Justifikatutako lan-denboratza hartzen al da? Ala berreskuratu egin behar da?
 - Egun 1 baino gutxiago irauten duten bestelako baimenak.
8. Fitxaketarik egiten ez den egunak: Egiten al dira, idatziz, gorabeheren parteak edo antzekoak? Sartzen al da informazioa sisteman?:

- Lantokitik kanpo egindako lanak, egun oso 1 edo gehiago irauten dutenean
- Oporrak edo nahierara erabiltzeko egunak
- Gaixotasunagatiko ausentziak Gizarte Segurantzaren bajaran gabe
- Gizarte Segurantzak gaixotasunagatik emandako bajak
- Zenbait arrazoiengatik lizentziak: amatasuna, norberaren edo ahaideen ezkontza, ahaideen gaixotasun larria edo heriotza, etxe-aldaketa, ezinbesteko betebeharrak, eta abar.
- Ordaindutako baimenak, egun 1etik gorako iraupena dutenean
- Norberaren arazoak: ordaindu gabeko baimenak, egun 1etik gorako iraupena dutenean. Argi eta garbi bereizten al dira aurrekoetatik?

Fitxaketa-sistema; informazio-irteerak

9. Sistemak fitxaren datuetatik abiatuz sistemak eskaintzen duen eguneko informazioa. Zuzena eta osoa al da, aurreko ataletan emandako erantzunetatik abiatuz?

Gorabeheren kontrola: informazio horretatik abiatuz egiten diren egiaztapenak eta jarduketak.

Aztertu kontrol-sistema zentralizatua ala deszentralizatua den: pertsonal-buruaren eta zerbitzu desberdinetako buruen erantzukizunak. Ba al dago gai horri buruzko arau idatzirik, ala ez dago?

10. Berdin astekoa.
11. Berdin hilekoa.
12. Berdin urtekoa.

Fitxaketa-sistema; eragin ekonomikoak

13. Baieztu ordaindu gabeko baimenak berreskuratu egiten diren ala nominatik deskontatzen diren.
14. Deskribatu presentzia-denbora behar baino laburragoa izan denean hartzen diren neurriak: falta diren orduak berreskuratzeko obligazioa, nominan deskontuak aplikatzea, eta abar.
15. Izan al da absentismo-kasu larririk? Zer nolako neurriak hartu dira horien aurrean?

Gaixotasunagatiko bajak

16. Zein ausentzia-egunetik aurrera exijitzen da Gizarte Segurantzaren baja aurkeztea? Ba al dago horri buruzko arau idatzirik, ala ez dago?



Aparteko orduak

17. Aparteko ordurik ordaintzen bada: exijitzen eta egiaztatzen al da horien ordutegi-frogarik?

Erakunde autonomoak

18. Lortu arestian adierazitako datu guztiak, administrazio horren menpeko erakunde autonomo bakoitzeko.

Balorazio orokorra eta hobetzeko ildoak

19. Eskatu elkarrizketatuari presentzia-kontrolako sistemari buruzko balorazio subjektiboa egin dezala.
20. Eskuratu elkarrizketatuarengandik sisteman sartu nahi lituzkeen hobekuntzen zerrenda, datei eta edukinei dagokienez ahal bezain zehatza.

I. ALCANCE DEL TRABAJO

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri-Kontuen Euskal Epaitegia ha analizado los procedimientos de Control de Presencia del Personal en las Administraciones Vascas, proyecto incluido en el Programa Anual de Trabajo para el año 1997.

Este informe ha sido realizado a partir de entrevistas con los directores de personal de las mayores administraciones vascas (el guión normalizado de las entrevistas se presenta como anexo A.2).

Las administraciones estudiadas, con el número aproximado de empleados de cada una de ellas al cierre del ejercicio 1996, son las siguientes:

ENTIDAD	Nº EMPLEADOS (*)
Administración General (acuerdos y convenios generales)(**) ...	4 700
Diputación Foral de Alava	1 700
Diputación Foral de Bizkaia	3 600
Diputación Foral de Gipuzkoa	2 000
Ayuntamiento de Vitoria/Gasteiz	2 400
Ayuntamiento de Bilbao	2 600
Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián	1 500
TOTAL	18 500

(*) Incluye los organismos autónomos

(**) Excluidos otros acuerdos y convenios: Ertzantza y UTAP, personal sanitario de Osakidetza, docentes de Educación, y personal de Justicia

II. EL CONTROL DE PRESENCIA


En este epígrafe se desarrollan los elementos principales que debe tener en cuenta un sistema adecuado de control de presencia.

II.1 QUÉ ES

El *control de presencia* es el conjunto de medidas que una entidad adopta para garantizar que sus trabajadores cumplen el horario laboral establecido.

